



TOLOSAKO
UDALA

Esp. Zk 2023DO100022

UNITATEA	KULTURA, GAZTERIA ETA FESTAK SAILA
XEDEA	2024KO INAUTERIETAKO KARROZA ETA KONPARTZAKO DIRULAGUNTZA
ORDEZKARIA	TOLOSAKO UDALA
TITULARRA	TOLOSAKO UDALA

ZINEGOTZI DELEGATU DEKRETUA

Tolosako Udaleko Aitzol Gartzia Azurmendik, Jaietako zinegotzi delegatuak, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak, 2023kouztailaren 6koa, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

AURREKARIAK

Tolosako Udalak honako xedapenak onartuak ditu:

- Tolosako Udalak dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea, Udalbatzak 2023ko urtarrilaren 26an onartua (GAO 2023/68, 2023ko apirilaren 11koa).
- Tolosako Inauterietako dirulaguntzen eta antolamenduaren Ordenantza Berezia, Udalbatzak 2019ko azaroaren 28an onartua (GAO 2020/49 2020ko martxoaren 12koa).

Orain, 2024ko Inauterietako karroza eta konpartsetan parte hartzeagatik dirulaguntzak horiek emateko deialdia onartu behar da, xedapen hauen arabera: 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa (22.artikulutik 27.era) eta 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, lege orokorraren erregelamendua onartzen duena (55 artikulutik 64.era).

Administrazio Orokorreko Teknikariak, 2023ko azaroaren 7an, deialdia onartzearen aldeko txostena egin du. Laburbilduz hau jasotzen du:

“LEHENA. Diru-laguntzak emateko prozedura arrunta izango da norgehiagokakoarena...”

“BIGARRENA. Gaiari aplika dakioken legeria “

“HIRUGARRENA.-Deialdiaren edukiera”

“LAUGARRENA. Interesdunen eskabideek arauan edo deialdian zehaztutako dokumentu eta argibideez lagunduta egon behar dute...”

“BOSGARRENA. Diru-laguntzak emateko prozeduraren Ebazpena arrazoituko da oinarri arautzaileek xedatutakoaren arabera; nolanahi ere, hartutako Ebazpenaren arrazoibideak prozeduran egiaztatuta geratu behar dute..”

“SEIGARRENA. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 20.8.b) artikuluan jasotzen den emandako diru-laguntzak BDNSan argitaratu beharrari dagokionean...”

“ZAZPIGARRENA. Prozedura honako hau izango da...”

ESKU148106ac-fdbc-4967-8042-2c7067be1a87

Esp. Zk 2023DO100022

OHARRA-Deialdian ondoko zuzenketa sartuko da:

Erderako bertsioan akats bat dago, 4 orrian. Izan ere : "Sin oposición del interesado" jartzen du eta "Salvo oposición del interesado" jarri behar du.

Kontu-hartzailetzak, 2023ko abenduaren 19an, fiskalizazio txostena egin du eta emaitza ERREPARO EZ ETENARAZLEA da.

Jasotako deialdi proposamena ez dator bat deialdi hau erregulatzen duen ordenantza espezifikoarekin.

- Deialdi proposamenaren lehen orrian eguneratu egin behar da Tolosako Udaleko dirulaguntzak erregulatzen dituen araudiaren onartze data. Egun indarrean dagoen ordenantza orokorra 2023ko apirilaren 11an argitaratu zen GAO n 68 zenbakiarekin.*
- Bigarren orrian honako hau ageri da eskatzaile moten inguruan:*

Deialdi proposamenean ageri dena:	Ordenantza espezifikoan ageri dena:
2. Konpartsak: <i>Plataformaren gutxieneko neurriak: 2 m zabal eta 3 m luze.</i> <i>Derrigorrezko baldintzak: emanaldia edo/eta dantzaldia egitea.</i>	B) Konpartsak: <i>Plataformaren gutxieneko neurriak: 2 m. zabaleta 3 m. luze.</i> <i>Derrigorrezko baldintzak: emanaldia egitea.</i>

Horiz koloreztatutako zatia ez da dirulaguntza deialdi hau erregulatzen duen ordenantza espezifikoan ageri.

Fiskalizazio txosten honen eranskineko 3.1.2.09 betekizunean agertzen den moduan, deialdian eskaerak balioesteko irizpideak ageri behar dute eta irizpide horiek oinarri arautzaileetan ezarritakoekin bat etorri behar dira.

Aipatutako betekizun betetzeko, beraz, eskuineko zutabea ageri dena onartu beharko litzateke.

- Hirugarren eta laugarren orrian izena emateko karrozek eta konpartsek aurkeztu beharreko dokumentazioa zein den adierazten da. Adibide moduan honako hau jasotzen da karrozen atalean:*

«Karrozen formularioa (I. Eranskina): Bertan eskaera datuak eta justifikazioa datuak azaldu beharko dira.» Esaldi horiek berrikusi egin beharko lirateke, eskaerak aurkezteko unean zuri keta datuak eskatzen dira eta. Zuriketaren inguruko dokumentazioa aurrerago beste atal batean zehazten da.



TOLOSAKO
UDALA

Esp. Zk 2023DO100022

- *Dirulaguntzak banatzeko irizpideen inguruan onartzea proposatzen dena ez dator guztiz bat ordenantza espezifikoan ageri denarekin:*
-

Deialdi proposamenean ageri dena:	Ordenantza espezifikoan ageri dena:
KONPARTSAK ... - o Partaide kopurua: 5 euro partaideko. Emanaldiak - o Zuzeneko musika: 150 euro. - o Antzezpena: 90 euro. Koreografia - o Koreografia: 60 euro. <i>Emanaldi moduan onartuko dira, bai zuzeneko musika, baita antzezpena ere. Koreografia ez da emanaldi moduan onartuko.</i>	KONPARTSAK ... - o Partaide kopurua: 5 euro partaideko. - o Zuzeneko musika: 150 euro. - o Antzezpena: 90 euro. - o Koreografia: 60 euro.

- Ekarpen erlatiboan inguruko atala ere ez dator bat indarrean dagoen ordenantza espezifikoarekin.

Deialdi proposamenean ageri dena:	Ordenantza espezifikoan ageri dena:
<i>Ekarpen erlatiboak ekarpen finkoen gainean egingo da eta Karrozek zein Konpartsek eta plataformarik gabekoek jaso ahal izango dute.</i>	<i>Ekarpen erlatiboak ekarpen finkoen gainean egingo da eta Karrozek zein Konpartsek jaso ahal izango dute.</i>

- *Dirulaguntzaren justifikazioaren inguruko atala ez dator bat ordenantzan jasota dagoenarekin.*

Deialdi proposamenean ageri dena:	Ordenantza espezifikoan ageri dena:
<i>Dirulaguntza jaso ahal izateko, eskaerarekin batera, I. eta II. Eranskinean bertan, adierazi beharko dira bertan eskatzen diren datu guztiak. Horrez gain, zera aurkeztu beharko dute:</i> ... <i>Euskararen erabilpena baloragarria izango da soilik emanaldia eta koreografia dagoenean.</i>	<i>Dirulaguntza jaso ahal izateko, Iñauteriaren ondoren, derrigor aurkeztu behar dira:</i> • Karroza edo konpartsaren datuak (III. Eranskina). ... <i>e) Euskararen erabilpena baloragarria izango da soilik antzezpena dagoenean.</i>

Horiz markatutako atala egokitzeaz gain, aztertu egin beharko litzateke zein den



TOLOSAKO
UDALA

Esp. Zk 2023DO100022

eskatzaileak zuriketanaurkeztu behar duen eranskina: ordenantzan III. eranskina eskatzen da eta deialdian I eta II eranskinak.

- Zazpigarren orrian honako hau ageri da aurrekontu kredituaren inguruan:

«Deialdi honetarako Tolosako Udalak 35.000 euro bideratuko ditu 2024ko 0800.481.01.338.00 partidaren kargura, betiere dirulaguntza emateko ebazpena emateko unean obligazioak finantzatzeko aurrekontu-kreditu egokia eta nahikoa»

Datorren urteko aurrekontua oraindik onartu gabe badago ere, 45.000 euroko kreditua egotea aurreikusten da aipatutako partidari. 2023 urteko dirulaguntza deialdian ere kopuru hori bideratu zen dirulaguntza deialdi honetara.

Hala ere, zenbateko hori baina kopuru txikiago bat banatu nahi bada (35.000 €), posible litzateke.

Orokorrean aipatzekoa litzateke proposatu den dirulaguntza deialdia ez datorrela bat dirulaguntzahori arautzen duen oinarriekin (ordenantza espezifikoarekin).

Dirulaguntzaren deialdiak bat etorri beharko luke oinarriekin eta beharrezko diren aldaketa guztiak egin beharko lirateke hori bete dadin. Beharrezko diren aldaketak txosten honetan aipatzen direnek edo ez aipatuagatik oinarrien aurka doazenek osatuko lukete

ESKU148106ac-fdbc-4967-8042-2c7067be1a87



TOLOSAKO
UDALA

Esp. Zk 2023DO100022

Horiek horrela, Zinegotzi Delegatu honek

ERABAKI DU:

LEHENA.- Tolosako Udalak 2024ko Inauterietako karroza eta konpartsetan parte hartzeagatik dirulaguntzak norgehiagoka araubidez emateko deialdia onartzea, ondorengo testuaren arabera:

2024KO INAUTERIETAKO KARROZA ETA KONPARTSETAN PARTE HARTZEAGATIK DIRULAGUNTZAK ARAUTUKO DITUZTEN OINARRIAK

HELBURUA

Inauterietan karrozetan eta konpartsetan parte hartzeagatik dirulaguntzak norgehiagoka-araubidez eskatzeko prozedura arautzea. Dirulaguntzak 2024ko Inauterietan parte-hartze aktiboa sustatzeko izango dira, eta duten proiektzio eta interesagatik bat etorriko dira udaleko Kultura, Festak eta Gazteria Departamentuaren programen helburuekin.

ARAUDIA

- Tolosako Udalak Tolosako udalaren eta bere erakunde publikoen dirulaguntzen ordenantza orokorra, Udalbatzak 2023ko urtarrilaren 26an onartua (GAO 2023/68 2023ko apirilaren 11koa)
- Tolosako Inauterietako dirulaguntzen eta antolamenduaren Ordenantza Berezia, Udalbatzak 2019ko azaroaren 28an onartua (GAO 2020/49 2020ko martxoaren 12koa)

BASES REGULADORAS DE LAS SUBVENCIONES POR PARTICIPAR EN LAS CARROZAS Y COMPARSAS DE LOS CARNAVALES DE 2024

OBJETO

Regular el procedimiento de solicitud de subvenciones mediante procedimiento concurrente por participar en las carrozas y comparsas de los Carnavales. Las subvenciones tendrán como fin promover la participación activa en los Carnavales de 2024, que por su proyección e interés coinciden con los objetivos del programa del departamento municipal de Cultura, Fiestas y Juventud.

NORMATIVA

- Ordenanza General reguladora de la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Tolosa, aprobada por el Ayuntamiento Pleno el 26 de enero de 2013 (BOG 2023/68 de 11 de abril de 2023)
- Ordenanza Especial de Subvenciones y Organización del Carnaval de Tolosa, aprobada por el Ayuntamiento Pleno el 28 de noviembre de 2019 (BOG 2020/49 de 12 de marzo de 2020)

ESKU148106ac-fdbc-4967-8042-2c7067be1a87



TOLOSAKO
UDALA

Esp. Zk 2023DO100022

ESKATZAILE MOTAK

1. Karrozak:

- Plataformaren gutxieneko neurriak: 2,5 m zabal, 7 m luze eta 1 m altu. Gehieneko zabalera: 3,5m.
- Derrigorrezko baldintzak: ibilgailu baten gainean egina edo atoiari eraman, soinu ekipoa, emanaldia edo/eta dantzaldia, suitzailgailua eta gutxienez 5 pertaide.

2. Konpartsak:

- Plataformaren gutxieneko neurriak: 2 m zabal eta 3 m luze.
- Derrigorrezko baldintzak: emanaldia egitea

3. Plataformarik gabeko konpartsak:

- Derrigorrezko baldintzak: emanaldia egitea.

TIPO DE SOLICITANTES

1. Carrozas:

- Medidas mínimas de la plataforma: anchura, 2,5 m; longitud, 7 m; altura, 1 m. Anchura máxima: 3,5 m.
- Requisitos imprescindibles: construída sobre vehículo o remolcada, equipo de música, actuación o/y coreografía, extintor y 5 participantes como mínimo.

2. Comparsas:

- Medidas mínimas de la plataforma: anchura, 2 m; longitud, 3 m.
- Requisitos imprescindibles: realizar una actuación.

3. Comparsas sin plataforma:

- Requisitos imprescindibles: realizar una actuación.

ESKAERAK ETA DOKUMENTAZIOA

Inprimakiak osorik www.tolosa.eus eta behar bezala beteta UDATE-Herritarren Arreta Zerbitzuan aurkeztu beharko dira 20 egun naturaleko epean, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita:

UDATEren ordutegia: astelehenetik asteazkena, 7:15etik 14:15era, ostegunetan 07:15tik 19:00etara eta ostiraletan 08:15etatik 14:15era.

Horretaz gain, beste modu hauetako batean ere aurkeztu ahal izango dira:

SOLICITUDES Y DOCUMENTACION

Los impresos deberán presentarse completos en www.tolosa.eus y debidamente cumplimentados en el Servicio de Atención al Ciudadano (UDATE) en el plazo de 20 días naturales contados a partir del día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa:

Horario de UDATE: de lunes a miércoles de 7:15 a 14:15, jueves de 7:15 a 19:00 y viernes de 08:15 a 14:15.

Además, podrán presentarse de alguna de las siguientes formas:



TOLOSAKO
UDALA

Esp. Zk 2023DO100022

- a. Tolosako Udalaren erregistro elektronikoa eta 39/2015 legearen 2.1 artikuluan aipatzen diren gainerako edozein erregistro elektronikotan.
- b. Posta-bulegoetan, erregelamenduz ezartzen den moduan.
- c. Espainiak atzerrian dituen ordezkaritza diplomatikoetan edo bulego kontsularretan.
- d. Erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan.
- e. Indarrean dauden xedapenetan ezarritako beste edozein tokitan.

Pertsona juridikoek erregistro elektronikoa aurkeztu beharko dute nahitaez.

Izena emateko bi fitxa egongo dira, eskatzaile motaren arabera:

KARROZAK

- Karrozen formularioa (I. Eranskina): Bertan eskaera datuak eta justifikazioa datuak azaldu beharko dira. Derrigor aipatu beharko dira ordezkariaren datuak, ordezkariaren kontu korronte zenbakia eta kide guztien zerrenda. Baitasegurtasun-arduradun baten datuak ere. Karrozen parte-hartzaileen zerrenda osoa (izen-abizenak eta NAN zenbakia) eta I. Eranskinarekin datorren zinpeko aitortpena sinatua.
- Ibilgailuaren edo trakziozko ibilgailuaren gidarien gidabaimenaren fotokopia (gutxienez 2 pertsona), bide publikoan ibilgailuekin zirkulatzeko baimena dutela egiaztatzen duena.

- a. En el registro electrónico del Ayuntamiento de Tolosa y en cualquier otro registro electrónico a que se refiere el artículo 2.1 de la Ley 39/2015.
- b. En las oficinas de Correos, en los términos que reglamentariamente se establezcan.
- c. En las representaciones diplomáticas u oficinas consulares de España en el extranjero.
- d. Oficinas de asistencia en materia de registro.
- e. Cualquier otro que se establezca en las disposiciones vigentes.

Las personas jurídicas deberán presentarse obligatoriamente en el registro electrónico.

Habrán dos fichas de inscripción según el tipo de solicitante:

CARROZAS

- Formulario de carrozas (Anexo I): En el mismo deberán figurar los datos de solicitud y justificación. Deberán indicarse obligatoriamente los datos del/la representante, el número de cuenta corriente del/la representante y la relación de todos sus miembros. También se inscribirán los datos de una persona que será el/la responsable de seguridad. Lista de los/las participantes de las carrozas (nombre-apellidos y número de DNI) y la declaración jurada firmada que viene en el Anexo I
- Fotocopia del permiso de conducción de los conductores del vehículo de tracción (mínimo 2 personas) que acredite la autorización para circular con vehículos por la vía pública.

ESKU148106ac-fdbc-4967-8042-2c7067be1a87



TOLOSAKO
UDALA

Esp. Zk 2023DO100022

- Alokatzeko den trakziozko ibilgailuaren seguruaren fotokopia eta fitxa teknikoa (bide publikoan ibilgailuekin zirkulatzeko baimena dutela egiaztatzen duena).
- Erantzuleak ezin izango dira bikoiztu, eta erantzukizunak pertsona bakar batenak izango dira.
- Fotocopias del seguro del vehículo de tracción alquilado y de la ficha técnica (acreditación para circular con vehículos por la vía pública).
- Los/las responsables no podrán duplicarse y las responsabilidades serán de una sola persona.

KONPARTSAK

- Konpartsaren formularioa (II. Eranskina): Bertan eskaera datuak eta justifikazioa datuak azaldu beharko dira. Derrigor aipatu beharko dira ordezkariaren datuak eta kontu korronte zenbakia. II. Eranskinarekin datorren zinpeko aitortpena sinatua.
- Plataforma garraitzeko trakziozko ibilgailua erabiliko bada, seguruaren eta fitxa teknikoaren (bide publikoan ibilgailuekin zirkulatzeko baimena dutenaren egiaztatzen duena) fotokopia aurkeztu beharko da. Trakziozko ibilgailuaren gidarien gidabaimenaren fotokopia (gutxienez 2 pertsona), bide publikoan ibilgailuekin zirkulatzeko baimena dutela egiaztatzen duena.

COMPARSAS

- Formulario de la Comparsa 2 (II. Anexo): Deberá contener los datos de solicitud y justificación. Deberán indicarse obligatoriamente los datos del/la representante y , el número de cuenta corriente del/la representante. . La declaración jurada firmada que viene en el Anexo II.
- Si para trasladar la plataforma se va a utilizar un vehículo de tracción, las fotocopias del seguro y de la ficha técnica (acreditación para circular con vehículos por la vía pública). Fotocopia del permiso de conducción de los conductores del vehículo (mínimo 2 personas) que acredite la autorización para circular con vehículos por la vía pública.

Tolosako Udaleri Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak eta bestelako betebeharrak egunean dituela egiaztatu beharko da. Udalak ofizioz egiaztatuko du Gizarte Segurantzaren ordainketan eta zerga-betebeharretan egunean egoteko betebeharra betetzen dela, interesdunak aurka egin ezean.

Bi eranskinetan, bai karrozak, bai konpartsen, lehiaketan parte-hartu nahi duten adierazi beharko

Deberá acreditarse ante el Ayuntamiento de Tolosa que se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social. El Ayuntamiento comprobará de oficio el cumplimiento de la obligación de hallarse al corriente en el pago y en las obligaciones tributarias de Seguridad Social, sin oposición del interesado.

En ambos anexos, tanto las carrozas como las comparsas deberán indicar si desean participar en el concurso.



TOLOSAKO
UDALA

Esp. Zk 2023DO100022

dute.

Izena emandakoan, zenbaki bat jasoko du parte hartzaileak. Zenbaki hori, emanaldian, bistan jarri beharko du

La persona participante recibirá un número al inscribirse. En la actuación dicho número deberá estar visible.

DIRULAGUNTZAK BANATZEKO IRIZPIDEAK

Dirulaguntzen banaketa irizpide hauen arabera egingo da:

CRITERIOS DE REPARTO DE LAS SUBVENCIONES

El reparto de las subvenciones se hará según los siguientes criterios:

EKARPEN FINKOAK

KARROZAK

- Irteera egun kopuruak:
 - Bi egun: 1.300 euro.
 - Egun bakarra: 1.000 euro.

APORTACIONES FIJAS

CARROZAS

- Número de días de salida:
 - Dos días: 1.300 euros.
 - Un día: 1.000 euros.

KONPARTSAK

- Konpartsaren tamaina:
 - >5 m: 400 euro.
 - 3,5 - 5 m: 250 euro.
 - <3,5 m: 95 euro.
- Partaide kopurua: 5 euro partaideko.
- Zuzeneko musika: 150 euro.
- Antzezpena: 90 euro.
- Koreografia: 60 euro.

COMPARSAS

- Tamaño de la comparsa:
 - >5 m: 400 euros.
 - 3,5 - 5 m: 250 euros.
 - <3,5 m: 95 euros.
- Participantes: 5 euros por participante.
- Música en directo: 150 euros.
- Actuación: 90 euros.
- Coreografía: 60 euros.

Emanaldi moduan onartuko dira, bai zuzeneko musika, baita antzezpena ere. Koreografia ez da emanaldi moduan onartuko.

Se admitirán como actuaciones tanto la música en directo como la actuación. La coreografía no se aceptará como actuación.

ESKU148106ac-fdbc-4967-8042-2c7067be1a87



TOLOSAKO
UDALA

Esp. Zk 2023DO100022

EKARPEN ERLATIBOAK

Ekarpen erlatiboak ekarpen finkoen gainean egingo da eta Karrozek zein Konpartsek jaso ahal izango dute.

- Gizon-emakume parekidetasuna:
 - Partaideen erdia edo gehiago emakumezkoak badira, % 10 gehiago.
- Euskararen erabilpena:
 - Emanaldia euskara hutsean, % 10.
 - Emanaldia elebitan, % 5.

Irizpide hauek kontuan harturik, jaso beharreko diru kopuruak, diru-laguntza honetarako onartuta dagoen kopurua gaindituko balu, dirulaguntza guztien murrizpen proportzionala egingo da.

DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA

Dirulaguntza jaso ahal izateko, eskaerarekin batera, I. eta II. Eranskinean bertan, adierazi beharko dira bertan eskatzen diren datu guztiak (*Tolosako Inauterietako dirulaguntzen eta antolamenduaren Ordenantza Berezian III eraskina bete behar dela dioen arren, deialdi bereziak dioen moduan I. eta II. Eranskina bete behar dira justifikazioa onartzeko*). Horrez gain, zera aurkeztu beharko dute:

Karroza edo konpartsaren argazki bat eta bideo bat. Argazkian parte hartzaile guztiak eta plataforma garbi ikusi behar dira. Bideoan emanaldia erakutsi beharko da. WeTransfer bidez bidaliko da informazio guztia festak@tolosa.eus helbide elektronikora bidaltzailearen identifikazioa ondo bermatuta.

Argazkia, bideoa eta datuak aurkezteko epea

APORTACIONES RELATIVAS

Las aportaciones relativas se harán sobre las fijas y podrán ser recibidas tanto por carrozas como por Comparsas.

- Igualdad entre hombres y mujeres
 - Si al menos la mitad de los participantes son mujeres, un 10 % más.
- Uso del euskera
 - Actuación íntegramente en euskera, 10 %
 - Actuación bilingüe, 5 %.

En caso de que, teniendo en cuenta estos criterios, el importe a recibir supere la cantidad aprobada para esta subvención, se llevará a cabo una reducción proporcional de todas las subvenciones.

JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN

Para el cobro de la subvención de los Carnavales se deberá aportar toda la información requerida en el Anexo I. y II

(la Ordenanza Especial de Subvenciones y Ordenación del Carnaval de Tolosa establece la obligatoriedad del cumplimiento del Anexo III para la justificación, pero tal y como se recoge en la convocatoria especial se debe cumplimentar el anexo I o II). Además de eso, deberán aportar lo siguiente:

Una fotografía de la carroza o comparsa y un vídeo. En la fotografía deben aparecer claramente todos los participantes y la plataforma. En el vídeo se mostrará la actuación. Toda la información se enviará por WeTransfer a la dirección festak@tolosa.eus, con identificación correcta del remitente.

El plazo de presentación de la fotografía, el vídeo



TOLOSAKO
UDALA

Esp. Zk 2023DO100022

otsailaren 28a izango da.

Bideorik bidaltzen ez duen karroza edo konpartsari ez zaizkio baloratuko zuzeneko musika, antzezpena, koreografia eta euskararen erabilpen atalak.

Euskararen erabilpena baloragarria izango da soilik antzezpena dagoenean.

Prozedura ebatzi eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da.

DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Dirulaguntza hauen banaketa aurkezten diren karroza eta konpartsen artean banatuko da, oinarri hauetan onartutako irizpideen arabera. Eskaeren balorazioa Herritarren arloko batzordeari dagokio. Balorazioa, departamentuko arduradunaren txostenean oinarrituko da. Balorazio hori eta dirulaguntza emateko proposamena organo eskudunaren esku jarriko da, hark onar dezan.

Tolosako Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorrean xedatutakoaren arabera ordainduko dira diru-laguntzak.

AURREKONTUKO PARTIDA

Deialdi honetarako Tolosako Udalak 45.000 euro bideratuko ditu 2024ko 0800.481.01.338.00 partidaren kargura, betiere dirulaguntza emateko ebazpena emateko unean obligazioak finantzatzeko aurrekontu-kreditu egokia eta nahikoa badago.

DIRULAGUNTZAK JASOTZEKO BETE BEHARREKO ARAUAK

Tolosako inauterietan parte hartuko duten karrozen

y los datos finalizara el 28 de febrero.

A las carrozas y comparsa que no hayan enviado vídeo no se les puntuará los apartados de música en directo, actuación, coreografía y uso del euskera.

El uso del euskera será tenido en cuenta solo cuando haya solo actuación.

El plazo máximo para resolver y notificar no podrá exceder de seis meses.

IMPORTE DE LAS SUBVENCIONES

El reparto de estas subvenciones se realizará entre aquellas carrozas y comparsas que se haya presentado, en función de los criterios aprobados en estas bases. La valoración de las solicitudes corresponde a la Comisión de Área Ciudadana. La valoración se basará en el informe del responsable del departamento. Dicha valoración y la propuesta de concesión se someterán al órgano competente para su aprobación.

El abono de las subvenciones se realizará según lo dispuesto en la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa.

PARTIDA PRESUPUESTARIA

Para esta convocatoria el Ayuntamiento de Tolosa destinará 45.000 euros con cargo a la partida 0800.481.01.338.00 de 2024, siempre que exista crédito presupuestario adecuado y suficiente para financiar las obligaciones en el momento de la resolución de concesión de la subvención.

NORMAS A CUMPLIR PARA PODER RECIBIR LAS SUBVENCIONES

Se tendrán que cumplir todos los requisitos que

ESKU148106ac-fdbc-4967-8042-2c7067be1a87



TOLOSAKO
UDALA

Esp. Zk 2023DO100022

eta konpartsen baldintzak ordenantza orokorretan eta oinarrietan jartzen duen guztia bete beharko dute. Baita ere, udalak karroza eta konpartsei desfilean parte hartzeko 2024ko ezarri ditzakeen baldintzak ere.

OINARRIAK URRATZEAGATIK NEURRIAK

Disko konpartsek, hau da, musika anplifikatua jartzeaz gain beste jarduerarik egiten ez duten konpartsek, **ez dute dirulaguntzarik jasoko**.

Oinarrietan xedaturikoa ez betetzeagatik eta **Udaltzaingoaren parte eta salaketa** jaso duten karroza eta konpartsek ezingo dute dirulaguntzarik jaso.

Gehiegizko zarata maila dutenak eta zarataren kontrolerako **eremu berezia** betetzen ez duten konpartsei ezingo dute dirulaguntzarik jaso.

Ibilbideko kokapena errespetatzen ez duten konpartsek, antolakuntzaren berariazko baimenik izan ezean, ezingo dute dirulaguntzarik jaso.

Aipatutako horiek guztiak betetzen eta errespetatzen ez badira, hurrengo egunean ateratzeko baimena ere ukatu daiteke.

BIGARRENA.- Onartutako deialdia Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean eta Tolosako Udalaren web orrian argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Dekretu honen berri ematea Kultura, Festak eta Gazteria Departamentuari eta Kontuhartzailatza Departamentuari.

ponen en la ordenanza general para las carrozas y comparsas que participarán en los carnavales de Tolosa. También las condiciones que el Ayuntamiento pueda establecer para la participación en el desfile de carrozas y comparsas en el 2024.

MEDIDAS POR INCUMPLIMIENTO DE LAS BASES:

Las Comparsas disco, es decir, las que no tienen otra actividad más que poner música amplificada **no serán subvencionadas**.

Las comparsas que no cumplan con los estipulado en las bases y que reciban **partes y sanciones de la Policía Municipal** no se subvencionarán.

Las comparsas que **superen el nivel de ruido permitido** y a las que no cumplan con la zona especial de control sonoro no se subvencionarán.

Las comparsas y carrozas que no respeten su ubicación en el recorrido, sin el permiso expreso de la organización, no se subvencionarán.

De no cumplirse y respetarse todos estos extremos, podrá denegarse el permiso de salida en el siguiente día.

ESKU148106ac-fdbc-4967-8042-2c7067be1a87



TOLOSAKO
UDALA

Esp. Zk 2023DO100022

Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsioa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.

Bestela, birjarpen errekurtsioaren orde, edo errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsio hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.

Agindu eta izenpetzen duena Zinegotzi Delegatuak, eta nik, Idazkari akzidentala naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinadura digitaleko datan.

ZINEGOTZI DELEGATUA

Nire aurrean,
IDAZKARIA

Aitzol Gartzia Azurmendi

Begoña Garmendia Vázquez



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2023DO100022-Dekretua/Decreto ()